

II. ETA III. GRADUKO MENDEKOTASUNA DUTEN ADINEKOENTZAKO EGUNEKO ZENTROA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Pertsona 65+ mendekotasuna > Eguneko zentro baterako sarbidea

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Zerbitzu honek eguneko arreta eskaintzen die beren ohiko ingurunean, mendekotasuna edukitzeagatik, artatu ezin diren premiak dituzten adinekoei ([2.2.1 fitxa](#)). Mendekotasuna duen pertsonaren autonomia-mailari eustea eta haren ohiko zaintzaileei laguntzea da helburua. Banakako zerbitzu integrala da, eta, hala, malgutasun-irizpideak aplikatzen dira, zerbitzua pertsonaren behar eta lehentasunetara hobeto egokitzeko. Intentsitate ertain eta handiko zerbitzua da, eta hauek bermatzen dira:

- zaintzaileak etengabe egotea.
- zerbitzu medikoa eta erizaintzakoa ematea, hala badagokio.
- diziplina anitzeko profesional-talde baten laguntza, ongizate fisiko, psikologiko eta sozialera bideratutako arreta integrala emateko.

Eguneko arreta zerbitzuan adineko erabiltzaileari eskaintzen zaio: estimulazio, hezkuntza eta aisialdi esku-hartzea, esku-hartze psikosoziala, laguntza eta garraio egokitua, beharrezkoa denean. Otordu-zerbitzua eta higiene pertsonalerako zerbitzua ere dituzte. Azkenik, erabiltzaileen beharren arabera, osasun-zerbitzuak eskaini ditzakete: erizaintzako arreta, arreta medikoa, errehabilitazioa, jarduera terapeutikoak... Zerbitzuaren erabilera aldi baterakoa edo iraunkorra izan daiteke.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

II. eta III. graduko mendekotasuna duten 65 urtetik gorako pertsonak (mendekotasuna baloratzeko baremoan 50 puntutik 100 puntura izanik), intentsitate ertain edo handiko laguntza behar dutenak eguneroko jarduerak egiteko.

II. gradua - Mendetasun larria.

Pertsonak eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko laguntza behar duenean, **egunean bizpahiru aldiz**, baina ez duenean zaintzaile baten etengabeko laguntza nahi edo ez duenean laguntza zabalik behar bere autonomia pertsonalerako.

III. gradua - Mendetasun oso larria

Pertsonak laguntza behar duenean eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko **egunean hainbat aldiz**, eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentzoriala erabat galdua duenez, beste pertsona baten laguntza ezinbestekoa eta etengabea behar duenean edo autonomia pertsonalerako laguntza orokorra behar duenean.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- 65 urte edo gehiago izatea.
- Mendekotasuna edukitzea (50 puntu edo gehiago mendekotasunaren balorazio-baremoan).
- Intentsitate ertain edo handiko laguntza behar izatea.
- Eskaera egiten den Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea.

Zein da zerbitzuaren kostua?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta zerbitzua erabiltzeko modalitatearen arabera.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Foru Aldundien ardura da zerbitzua ematea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude eta gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta zerbitzu hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

Informazio gehiago:

- [Mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroa Araban](#)
- [Mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroa Bizkaian](#)
- [Mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroa Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)